

Corpusa Artearen memoria

Baliabide gehigarriak



ARTEAREN MEMORIA. GATAZKAK LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

CORPUSA.

GATAZKA HISTORIKOAK LANTZEKO MATERIAL ARTISTIKO OSAGARRIAK

Egileak: Ane Arrastoa, Izaro Arroita, Amaia Elizalde, Nagore Fernandez, Ainhoa Urzelai.

Proiektu hauen baitan burutua: US21/15 (EHU), IT1047-16 (Eusko Jaurlaritzza), eta PID2021-125952NB-100 (MICIU/AEI/10.13039/501100011033 eta FEDER, UE).

AURKIBIDEA

1) CORPUSAREN AZALPENA	3
2) LITERATUR CORPUSA	4
3) MATERIAL DIDAKTIKOA	15
3.A. Garai bakoitzerako informazio entziklopedikoa	15
3.A.1. Web baliabidea	15
3.A.2. Liburuak	16
3.B. Gerra edo gatazka bakoitza lantzeko material artistiko eta osagarria	18
1. LEHEN MUNDU GERRA (1914-1918)	18
1.1. Garaiko materialak	18
1.2. Hemeroteka	22
1.3. Postmemoria	24
1.4. Testigantzak	25
2. 1936KO GERRA ZIBILA (1936-1939)	27
2.1. Garaiko materialak	27
2.2. Hemeroteka	39
2.3. Postmemoria	49
2.4. Testigantzak	60
3. BIGARREN MUNDU GERRA (1940-1945)	61
3.1. Garaiko materialak	61
3.2. Hemeroteka	65
3.3. Postmemoria	68
3.4. Testigantzak	70
4. FRANKISMOA (1939-1975)	71
4.1. Garaiko materialak	71
4.2. Hemeroteka	78
4.3. Postmemoria	81
4.4. Testigantzak	86
5. EUSKAL GATAZKA	87
5.1. Garaiko materialak	87
5.2. Hemeroteka	109
5.3. Testigantzak	117

1) CORPUSAREN AZALPENA

“Corpusa” izendatu duguna hiru ataletan banatuta dago. Batetik, “Literatur corpusa” izendaturikoan, Euskal Herriko gatazka politiko-armatuak irudikatzen dituzten obren hautaketa bat egin da. Berariaz Haur eta Gazte Literatura (hemendik aurrera HGL) gisa argitaratutakoak eta jatorriz euskaraz sortutakoak hartu ditugu kontuan. Adibide guztietan izan da kontuan zein adinetako hartzaileri dagoen zuzendua literatur lana. Alabaina, ezinbestekoa da irakasleak momentuan momentuko beharrei, lanketa motei eta taldeen ahalmen nahiz beharrei egokitzea hautaketa. Bestetik, “Material didaktikoa” atalaren baitan, “Garai bakoitzerako informazio entziklopedikoa” azpiatalean, proposatutako literatur corpusean ageri diren garai eta gertakariei buruzko informazioa bildu nahi izan dugu. Informazioa baliabide mota desberdinetatik bildu dugu, betiere helburua izan delarik irakasleari gai-garai-gertakari nagusiei buruzko informazio oinarritzko zenbait eskaintzea Lehen Hezkuntzako hurrei egokiturik. Azkenik, “Gerra edo gatazka bakoitza lantzeko material artistikoa” atalean, proposatutako literatur corpusean nagusitzen edota agertzen diren gaiak (betiere gatazkari lotuak) jorratu ahal izateko material zenbait bildu dugu. Material horren baitan, mota desberdinetako baliabideak banatu ditugu: gertakaria gertatu momentukoak, gerora sorturikoak eta testigantzak.

Materialen baitako azpisailkapena egiteko hainbat zailtasun aurkitu ditugu. “Testigantza” izaera bera zabala bada ere, aipatu azken atalean berariaz bildu nahi izan ditugu lekukotzen testigantza zuzenak. Edonola ere, batzuetan, zaila da zurrun bereiztea zer den momentuan bertan sortutakoa eta zer, berriz, gerora sortutako ekoizpena. Abestiekin, adibidez, hori gertatzen da. Euskal sortzaile garaikideek maiz hartu izan dituzte garai bateko olerkarien bertsoak eta, beraz, bi modutara uler liteke produkzio (artistiko) hori: oinarrian dauden bertsoak sortu ziren garaiko testigantza gisa, ala abeslariak letrak musikatu zituen garaiko lekukotasun gisa. “Euskal gatazka” gaiari dagokionez, ez dago “Postmemoria” azpiatalik, oraindik ere ez baikara horretara iritsi.

2) LITERATUR CORPUSA

Jarraian, Euskal Herriko gatazka politiko-armatuak hizpide hartzen dituzten euskal HGLko obren hautaketa eskaini dugu. Liburu bakoitzean irudikatzen den gatazka zein den zehazteaz gain, horrekin lotutako azpigai edo ildo nagusiak identifikatu ditugu. Era berean, obrak helburu duen hartzailearen adina zehaztu dugu.


Urtebete itsasargian

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Miren Agur Meabe
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Gerra Zibilaren bilakaera (Euskal Herrian), emakumeen papera gerran eta horren aldarrikapena, gudariak, milizianak, *emakumeak*, emakumeen aurkako erasoak (sexu-erasoa, bortxaketa eta buru-soilketa), Gernikako bonbardaketa, Durangoko bonbardaketa, Bilboren erortzea, erasoak, salaketak, atxiloketak, indarkeria, fusilamenduak, hilketak, ebakuazioak (*Habana* itsasontzian), erbesteratzea, gosetea, errazionamendua eta euskal kulturak eta politikak pairatutako kalteak (euskararekin lotutako errepresioa eta adierazpen askatasuna).



Gerrak ez du izenik

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Leire Bilbao eta Maite Mutuberria
- **Adina:** +6
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Frontera joan beharra, Durangoko bonbardaketa eta osteko txikizioa, eskolarik eza, beldurra eta samina.



Negu luzearen atarian

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren
- **Adina:** +6
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** 1936ko estatu-kolpea, frankistak, errepublikarrak, gudaria, Elgeta/Intxortako frontea, bonbardaketa, tiroketa, beldurra, izua, gosea, etxe-miaketa, jabetza-apropiazioa eta liburuaren erreketak.



Arrastoa

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Lehen Mundu Gerra (aipamen hutsa)
- **Egilea(k):** Juan Kruz Igerabide
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Errepublikaren aldarrikapena, 1936ko estatu-kolpea, salaketak, etxe-miaketak, etxebizitzaren usurpazioa, atxiloketak, fusilaketak, tiroketak, indarkeria, izua, ihesa, karlistak, erreketek, falangistak, errepublikazaleak, matxinatuen alde egiteagatik onurak, Franco, Mola eta Saseta.



Udaberririk ankerrena

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Unai Iturriaga eta Alex Sanvi
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Gerra Zibilaren hasiera, atxiloketak, fusilamendua, errepresioa, emakumeen aurkako indarkeria (bortxaketa), Otxandioko eta Durangoko bonbardaketa, Intxortako frontea, Eusko Gudarostea, erbestea (*Habana* itsasontzia), karlistak, milizianoak, faxistak eta erreketek.



Amonarenean kea

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Ana Ibañez eta Dani Martirena
- **Adina:** +5
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Falangistak, errepublikarrak, mehatxuak, irainak, indarkeria, hilketa, fusilamendua, fusilatutako eta agertu gabeko hezurak, umiliazioa eta gosea.




Pikondoaren balada

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Leire Bilbao eta Maite Mutuberria
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Altxamendu militarra, desertzioa, hilketa, gudaria, bortxazko lana, gerraostea eta gosetea.



George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Lehen Mundu Gerra
 - Gerra Zibila
 - Bigarren Mundu Gerra
 - Abisiniako gerra
- **Egilea(k):** Edorta Jimenez
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Lehen Mundu Gerra: Bonbardaketa eta gas erikorrak.
 - Bigarren Mundu Gerra: Zibilen aire-bonbardaketak eta suntsiketa.
 - Gerra Zibila: Militarren altxamendua, Gernikako, Durangoko, Otxandioko, Eibarko, Bilboko eta Gerrikaitzeko bonbardaketa; Franco, faxistak, errepublikarrak, Euskal Armada, diktadura (oro har, ez frankismoa) eta hilketa.
 - Abisiniako gerra: Mussolini, italiar faxistak, hilketa eta erbestea.



Itsas azpiko sekretua

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
- **Egilea(k):** Lur Gallastegi
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Gerra Zibila: Frontea, Donostiako bonbardaketa, kartzelaratzea eta exilioa.
 - Frankismoa: Ondarretako kartzela, emakume presoak, emakumeen ile mozketak, mojen mehatxuak eta tratu txarrak, lapurtutako haurrak, euskararen debekua eta hizkuntza galera.




Beroki gorria

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila eta gerraostea
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta eta Yolanda Mosquera
- **Adina:** +14
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Durangoko, Gernikako eta Otxandioko bonbardaketak, Bilboren erorketa, ihesaldia, tiroketak, heriotza, beldurra, atsekabea, Jose Antonio Agirre lehendakaria, erbestea (*Habana* itsasontzia), (haur) errefuxiatuak, kanpalekuetako bizimodua eta umezurztasuna.



Behi euskaldun baten memoriak

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Bigarren Mundu Gerra
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
- **Egilea(k):** Bernardo Atxaga
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Bigarren Mundu Gerra: Makiak.
 - Gerra Zibila: Gudariak, kanoiak, fusilak, metrailaketa, fusilaketak, hilketak, gosetea eta pobrezia.
 - Frankismoa: Makiak, sabotajeak, bonbak, faxistak, etxe-miaketa, atxiloketa, hilketa eta tristura.



Kolosala izango da

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
- **Egilea(k):** Joseba Sarrionandia
- **Adina:** Gazteek irabazitako literatura
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Gerra Zibila: Gerraren hasiera, milizianoak, nazionalak, errepublikarrak, fusilaketak, bonbardaketak, traizioa, gosetea, errefuxiatuak eta iheslariak.
 - Frankismoa: Frankismoko kontrol zorrotza eta debekuak (euskaraz hitz egiteagatiko kartzelaratzeari).



Ikastola armairu barruan

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
- **Egilea(k):** Uxue Alberdi eta Patxi Paláez
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Gerra Zibila: Bonbardaketak, atxiloketak, fusilaketak eta ihesa.
 - Frankismoa: Euskararen debekua, ikastola klandestinoak, gau-eskolak, afektu adierazpen publikoen debekua, *Grisak* (Trafikoko eta Armadun Polizia), Lauaxetaren hilketa, Franco eta Hitler.



Metxa esaten dioten Agirretar baten ibili herrenak

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Bigarren Mundu Gerra
 - Lehen Mundu Gerra (abesti baten bidez)
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
 - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Koldo Izagirre
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Bigarren Mundu Gerra: Sasiko lana, naziak, erresistentzia, Pétain mariskala.
 - Gerra Zibila: Bruneteko gerra, Matxixakoko gerra, Intxortako ofentsiba, *Bizkaia* itsasontzia, *Amaiur* eta *Kirikiño* batailoiak, Alejo Bilbao komandantea, Bizente Egia kapitaina, Kondor Legioa, erreketak, Santoñako eta Larrinagako kartzela, fusilamenduak eta salaketak.
 - Frankismoa: Adierazpen askatasuna eta euskararen debekua.
 - Euskal gatazka: Iheslariak, sasiko lana, miaketak eta atxiloketa.



1948ko uda

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Gerra Zibila: Bonbardaketa eta fusilamendua.
 - Frankismoa: Diktadura, debekuak, askatasun eza, zentsura, euskararen debekua, euskaraz hitz egiteagatiko zigorra, errepresioa, salaketak, fusilamenduak, miseria, arrazionamendua, estraperloa, kontrabandoa eta exilioa (*Habana* itsasontzia).




Begi bat kokotean

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
 - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Juan Kruz Igerabide
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Gerra Zibila eta Frankismoa: Fusilamendua, tiroketa, etsipena, gosea, errazionamendua, adierazpen askatasunik eza, euskaraz aritzeko debekua, eskolan *Cara al sol* abesteko agindua, errepublikazaleak, salaketa eta atxiloketa.
 - Euskal gatazka: Tiroketa eta metrailaketa.



Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - LehenMundu Gerra
 - Bigarren Mundu Gerra
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
 - Aljeriako gerra
- **Egilea(k):** Begoña Durruty
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Lehen Mundu Gerra: Gosea, lubakiak, tiroketa, desertzioa, iheslariak, kartzela, elbarritasuna eta heriotza.
 - Gerra Zibila: Heriotza.
 - Frankismoa: Gaztelaniaz egiteko obligazioa, besoa altxatuta abestu beharreko *Cara al sol* kantua, bekatuaren itzala eta elizaren eragin erabatekoa.
 - Bigarren Mundu Gerra: Zaurituak.
 - Aljeriako gerra: Elbarritasuna, indarkeria, emakumeen bortxaketa, tortura, hildakoak, migratzaileak eta sufrimendua.




Mattin. Basoko gidaria

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea:** Jabier Erostarbe
- **Adina:** +8
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Hitler, Vichy-ko gobernua, Alemaniaren okupazioa, naziak eta haien sinbologia, Gestapoa, Aliatuak, erresistentzia, etxe-miaketak, iheslariak, mugalariak, jazarpena, atxiloketa eta hilketa.




Azken Garaipena

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Iban Zaldúa eta Julen Rivas
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Naziak eta haien proiektuak (purutasun zentroak), gobernuaren kontrol zorrotza, SSak eta juduen aurkako jazarpena (azken soluzioa eta kontzentrazio-esparruak).



Anbroxio

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Bigarren Mundu Gerra
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
 - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Eneko Bidegain
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Bigarren Mundu Gerra: Kontzentrazio-esparrua, gas-ganbera, *Shoah*, atxiloketa, tiroketa, urkamendua, jipoiak, behartutako lana, nazien torturak, salaketa, etxe miaketak, beldurra, gosea, heriotza, nortasunaren galera, tratu inhumanoa, trauma, deportazioa, erresistentzia, mugalaritza, iheslariak, Hitler, naziak, SSak, Gestapoa, alemanen okupazioa, Aliatuak eta Philippe Pétain.
 - Gerra Zibila eta Frankismoa: Franco, faxismoa eta euskaraz hitz egiteko debekua.
 - Euskal gatazka: Askatasuna eta Segi ezker abertzaleko erakundeen ilegalizazioa, giza eskubideen urraketak, adierazpen askatasuna, bi aldeetako atentatuak, mehatxuak, hilketak, kartzela, terrorismoa, espainiar komisaldegietako torturak, independentziaren aldeko borroka, presoaren aldeko kontzertua, Madrilgo auzitegia eta Baltasar Garzon epailea.




Arriskupean!

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Fernando Morillo
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** 1933ko Alemaniako hauteskundeak, Hitler, H. W. Goering, naziak, neonaziak.



Oihanaren koaderno

- **Lantzen den gerra:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Imanol Azkue eta Txiki Agirre “Keixeta”
- **Adina:** +5
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, presoak, kartzelako bizimodua, *vis a vis*ak, familia eta lagunekin egoteko murriztapena, askatasun galera, erosotasun eta intimitate eza, urruntze politika, presoekiko elkartasuna eta konpromisoa, eta presoen Euskal Herriratzea.




Nemo kapitainaren azken bidaia

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Castillo Suarez eta Aitziber Alonso
- **Adina:** +8
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, inkomunikazioa (presoarekin egoteko denbora mugatua eta senideekiko distantzia fisikoa), urruntze politika eta kartzelara egin beharreko bidaia luzeak, motxiladun haurrak eta zentsura (egunkari baten itxiera).




Ainhoari Gutunak

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joseba Sarrionandia
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, euskal preso politikoak, sakabanaketa politika, presondegietan jaiotzen diren umeak, motxiladun haurrak, euskal militanteak, militante klandestinoak (etakideak), mugalariak, iheslaria, erbestea, Euskal Herriaren zatikatzea eta independentziaren aldeko borroka.




Pikolo

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta eta Jokin Mitxelena
- **Adina:** +8
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Atentatua (kuartelean) eta ondoriozko hilketa, kartzela, preso politikoak, urruntze politika, *vis a vis*-ak, presoan aldeko bilkurak, manifestazioak, terrorista/etakidea, mehatxuak (guardia zibilaren semea izateagatik), gorrotoa, ezinikusia eta adierazpen askatasuna.



Hiru sopranoak

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren eta Alex Orbe
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta kotxe istripuak, kartzelan jaiotzen diren haurrak, motxiladun haurrak, Mirentxin furgoneta, presoan etxeratzearen aldeko manifestazioa, presoan inkomunikazioa eta ETaren bonbak eraildako familiarra.




Txakurraren alaba

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Manifestazioak, kale borroka, istiluak, atentatuak, pintaketak, erailketak, atxiloketak, kartzela, presoak, presoan ongietorriak, terroristak, terrorismoa, Guardia Zibilaren errepresioa eta torturak, espainiar eta euskaldunen arteko ezirikusia (inkomunikazioa), gorrotoa eta zapalkuntza.




Harri barruko bihotz-borrokak

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Juan Luis Zabala
- **Adina:** +10
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Militantzia, konpromiso politikoa, kale borroka, atentatuak, borroka armatua, ETaren su-etena, bahiketa, atxiloketak, kartzela, tortura, isolamendu-erregimena eta ertzainen jipoiak.



Tunelaz bestaldean

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joxerra Gartzia
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta motxiladun haurrak.



Larunbatean Bukowskin

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** John Andueza
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** ETaren biolentziako ekintzak, ETaren borroka armatuaren behin betiko uztea, Yoyesen hilketak, Imanol Larzabalen ihesaldia (mehatxuengatik), Joseba Sarrionandiaren kartzelako ihesaldia, erbestealdia, atxiloketa eta kartzela.




Para bellum

- **Lantzen den gerra/gatazka:**
 - Gerra Zibila
 - Frankismoa
 - Bigarren Mundu Gerra (aipamen hutsa)
 - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** John Andueza
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
 - Gerra Zibila: 1936ko altxamendu militarra, Eusko Gudarostea, bonbardaketak, emakumeen bortxaketak, eskubideen urraketa, atxiloketak, kartzela, tiroketak, fusilaketak, hilketak, frankistak, gudariak, milizianoak, Intxortako bataila, Durangoko eta Gernikako bonbardaketa (iradoki edo egiten da, hara doazen hegazkin frankistak aipatzen baitira, dena den, 1937ko martxoaren 31n eta apirilaren 26an izan ziren bonbardaketak), Emilio Mola, Franco, mendeku gosea eta indarkeria.
 - Frankismoa: Franco eta zapalkuntza.
 - Euskal gatazka: 1977ko Espainiako amnistia legea, GAL, ETA, ETaren enpresarien bahiketa eta iraultza-zerga, iheslariak, klandestinitatea, etakidea, sarekada, tiroketak, atxiloketak, Guardia Zibilaren torturak, hilketak, mendekua, gorrotoa, beldurra, Txiki eta Otaegiren fusilamendua eta Luis Carrero Blancoren aurkako atentatua.



Sasieskola

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Garbiñe Ubeda
- **Adina:** +12
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Guardia Zibilaren segada, tiroketa, hilketa, egunkarien manipulazioa, kale borroka, manifestazioak, atxiloketak, kartzelaratzekoak, poliziaren errepresioa, tortura salaketak, etakideak, Guardia Zibilaren aurkako atentatua (ETAk eragindakoa), gudaria/terrorista, iheslariak eta ZEN plana.



Antipodak

- **Lantzen den gerra/gatazka:** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Gaizka Arostegi
- **Adina:** +14
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kale-borroka, *Molotov* koktelak, ke-poteak, gas negar-eragileak, gomazko balak, Guardia Zibilaren segada, manifestazioak, atxiloketak, bahiketak, etxe-miaketa, atentatua, hilketa, tratu txarrak, torturak, umilazioak, errepresioa, xantaia, kartzela, urruntze politika, inkomunikazio egoera, presoengintza, gerra zikina, etakidea, errefuxiatua, gorrotoa eta ezinikusia.

